



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALEKO SAIL EZBERDINETARAKO IBILGAILU EZBERDINEN HORNIDURA KONTRATUA, PROZEDURA IREKI BIDEZ

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea udal brigadak eta udaltzaingoak bere egitekoak aurrera eramateko behar dituzten ibilgailu ezberdinen hornidura da. Horiek preskripzio teknikoen orrietan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte.

1. lotea: Udaltzaingorako pick-up kamioneta bat (CPV: 3410000-8: *vehículos de motor* eta CPV: 34114200-1: *automóviles de policía*).
2. lotea: Udal brigadarako turismo kotxe bat (CPV: 3410000-8: *vehículos de motor*).
3. lotea: Udal brigadarako kamioneta bat (CPV: 3410000-8: *vehículos de motor*, CPV: 34130000-7 *Vehículos de motor para el transporte de mercancías* eta CPV:34136200-1 *Camioneta con caja metálica*).

Kontratu honek hornidura kontratu administratibo izaera du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, 3/2011 Dekretu Legegileak onartutakoak, bere 9. artikuluan jasotzen duen moduan.

2. HAUTAKETA ETA ESLEIPEN PROZEDURA

Ibilgailu hauek hornitzeko kontratuaren esleipen modua prozedura irekia izango da. Edozein enpresarik aurkeztu ahal izango bere eskaintza, negoziaketa modu oro bazterturik geratuz, SPKLTB-ren 157 artikuluekin bat.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA. EXEKUZIO EPEA

Kontratu honen exekuzio epeak bat egingo du kontratu honen xede den hornidura emateko azken epearekin, hau da:



Usurbilgo Udala

1. lotea: Udaltzaingorako pick-up kamioneta bat: 60 egun natural, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
2. lotea: Udal brigadarako turismo kotxe bat: 45 egun natural, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
3. lotea: Udal brigadarako kamioneta bat: 100 egun natural, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hornidurak epe horietan ematen ez badira, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Udalak ez ohartarazi.

Hornidurak emateko lekuak:

-Udaltzaingorako ibilgailua (1. lotea): Joxe Martin Sagardia Plaza, z/g, 20.170 Usurbil, Gipuzkoa.

-Udal brigadarako ibilgailuak (2. eta 3. loteak): Zapiura 3-5. Atallu industrialdea, 20.170 Usurbil, Gipuzkoa.

4. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Hauek dira kontratu honen balio zenbatetsiak (matrikulazio barne):

1. lotea: 32.000 euro (%21eko BEZ-a 6.720 euro, guztira 38.720 euro)
2. lotea: 10.000 euro (%21eko BEZ-a 2.100 euro, guztira 12.100 euro)
3. lotea: 26.000 euro (%21eko BEZ-a 5.460 euro, guztira 31.460 euro)

Guztira 68.000 euro, %21eko BEZ-a 14.280 euro, guztira 82.280 euro.

Beti ere prezioaren barruan sartuko dira, administrazioak izendatutako zentroan ibilgailua entregatu bitartean egon daitezkeen gastu guztiak (garraioa barne), matrikulazio zerga, erantzukizun zibila garraioan zehar eta orokorrean, hornikuntza gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, Preskripzio Teknikoen Pleguetan eta plegu hauetan xedatutakoaren arabera.

Ibilgailuak pasa behar duen lehenengo azterketa teknikoa (ITV) ere prezioaren barruan egongo da eta baita kalera ateratzeko behar dituen baimen eta betebeharrak guztiengatik ordainketak.



Usurbilgo Udala

Aipatutako prezioak hobetu ditzakete lizitatzailleek, baina, beti ere, kontuan hartuko da lizitatzailleek hobetutako prezio horietan gastu guztiak sartuta daudela, garraio-gastuak barne.

5. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan:

- 1. lotea: 3.000.624.130.00.03 kontu-saila
- 2. eta 3. lotea: 1.7000.624.450.00.01 kontu-saila

6. ORDAINKETA

Hornigaiak entregatu, instalatu eta hartzen direnean, eta dagokion faktura aurkeztu eta gero ordainduko da haien prezioa; faktura hori hornigaiaren arduradunak gainbegiratu eta kontrastatuko du eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du. Faktura onartu eta gero, legez xedatutako epeetan ordainduko da.

Dena den, 1. eta 3. lotearen kasuan, ad hoc eskaturiko ezaugarriak dituzten ibilgailuak diren heinean, %20a aurreratzeko aukera aurreikusten da, hala behar izanez gero.

7. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan aurkeztu beharko dira ondasunak, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorriz. Dena dela, Udalak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera dezake.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, hornidura Udalari eman baino lehen ondasunetan galera, matxura edo kalteak izateagatik, beti ere, Udala berandutzan erortzen ez bada ondasunak hartzeko garaian. Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.



Usurbilgo Udala

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Udalak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

8. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

9. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERA KOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

10. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada eta beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

11. HORNIDURA HARTZEA ETA BERME EPEA

Hornidura jaso ondoren horniduraren harrera formala eta positiboa egingo da. Hornidura jasotzeko moduan ez badago, hori berariaz agerraraziko da eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo hornidura berria emateko, hitzartutakoaren arabera. Akatsak zuzentzen ez baditu, edo hornidura berritzen ez badu, Administrazioak kontratistaren kontura utziko du hornidura. Horiek horrela, Administrazioak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.



Usurbilgo Udala

Gainera, bi urteko berme epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, bai ibilgailuaren pieza bai eskulanari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

12. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Hornidura-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 299. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

13. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Udalari dagokio, SPKLTB-ko 210 artikulua arabera:

- a) kontratua interpretatzea,
- b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea,
- c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea,
- d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

14. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da. Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:



Usurbilgo Udala

- Prezioa: 61 punturaino (C gutun-azala)

Puntuaziorik handiena emango zaio eskaintza merkeenari eta gainerako eskaintzen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: biderkatu batetik eskaintza merke baxuenaren eta lizitazailearen eskaintza baloratuaren arteko zatiduraren emaitza eta bestetik irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

$$\text{Lizitazailearen puntuazioa} = \frac{\text{eskaintzarik txikiena}}{\text{lizitazailearen eskaintza}} \times 61$$

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKLTB-ko 152 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira.

-Ibilgailuen ezaugarri teknikoak: 20 punturaino (B gutun-azala)

Beti ere gutxienez, Preskripzio Teknikoen Orrietan zehaztutako baldintzak bete beharko dira. Horretarako, ibilgailuen ezaugarriak aurkeztuko dira: fitxa teknikoa, zerbitzuen liburua, erabiltzaile gida, materialak, dokumentazio grafikoa (katalogoa) eta plegu teknikoetan zerrendaturiko ezaugarriak betetzen dituztela ziurtatzeko beharrezko informazio guztia.

Ibilgailuaren kalitatea, ezaugarri teknikoak eta prestazioak hobetzen dituzten gainerakoak baloratuko dira:

- Kontsumoa gutxitzea: gehienez 10 puntu
- ekipamendua hobetzea: gehienez 5 puntu
- potentzia, sendotasuna, erosotasuna, etab. hobekuntzak: gehienez 5 puntu

- Hornidura epea moztea: 10 punturaino (C gutun-azala)

Hornidura epean murrizturiko egun natural bakoitzeko puntu 1, gehienez ere 10 egun natural murrizteko aukeraz.

- Ibilgailuen berme epea luzatzea: 9 punturaino (C gutun-azala)

Berme epea luzatzen den urte bakoitzeko 3 puntu, gehienez ere 3 urte gehiago.



Usurbilgo Udala

15. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Xabier Arregi, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa
2. Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Arloko Zinegotzia, Bokal gisa
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa
4. Karmele Lizaso Ubera, Udal Kontuhartzailea, Bokal gisa
5. Felix Aizpurua Arzallus, Zerbitzuetako burua, Bokal gisa
6. Pello Zubeldia Maiz, Udaltzainburua, Bokal gisa
7. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa

16. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikulua xedatzen dituen debeku kasuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 20. klausulan ezarritako baldintzen arabera egiaztatuko eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez parte hartu ahal izango dute, horretarako emandako ahalaren bidez. Pertsona juridiko baten izenean aurkeztuz gero, agiri bidez frogatu beharko du ahalmendurik dagoela hori egiteko. Batean zein bestean, kontratatzeke aipatu diren ezintasun kausek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, lizitatzaileren helburua izango da kontratu honen xedearekin zuzeneko harremana duten jarduerak egitea, eta hori gauzatzeko, giza baliabideak eta beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak izan beharko dituzte.

17. ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA



Usurbilgo Udala

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Usurbilgo Udaleko Errejistroa. Joxe Martin Sagardia plaza z.g. Usurbil

ORDUTEGIA: 8etatik 14:30etara

EPEA: lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko epean.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da honako atari informatiko edo webgunean: www.usurbil.eus

Eskaintzak arreta publikorako zehazturiko leku eta ordutegian aurkeztuko dira, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta **15 egun naturaleko epean**, hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak posta, telefax edo bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan xedatutako moduetan.

Proposamenak postaz bidaliz gero, enpresariak bidalketa data frogatu ahal izango du Posta bulegoan, eta kontratazio organoari eskaintzaren igorpena jakinarazi beharko dio telex, fax edo telegrama bidez egun berean, espediente zenbakia, kontratuaren objektuaren izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena idatziz jasoz.

Aipaturiko telex, fax edo telegrama jaso izanaren egiaztapena udal Idazkariak luzaturiko dilijentzia bidez egingo da. Lizitazio iragarkian zehazturiko epea amaitu ondoren kontratazio organoak proposamenen bat jasoko balu bi ukanbehar horiek bete gabe ez da proposamen hori onartuko. Edonola ere, epe horretatik 10 egun igarota aipaturiko agiriak ez balira jasoko hau ere ez da onartuko.

Bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen erabilerak gainera azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onaturiko Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak bere hamaseigarren xedapen gehigarrian zehazturiko ukanbeharrak bete beharko ditu.



Usurbilgo Udala

Lizitatzailerik bakoitzak ezin izango du lote bakoitzeko proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, halaber, aldi baterako enpresa proposamenik aurkeztu banako gisa eskaintzarik aurkeztu duen kasuetan edo aldi baterako enpresa bat baino gehiagotan egonez gero. Arau hauen urraketak berak aurkezturiko eskaintza guztiak ez onartzea eragingo du.

Eskaintza aurkezteak plegu honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar.

18. ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak itxitako 3 gutun-azaletan aurkeztuko dira, lizitatzailerik sinaturik eta jakinarazpenetarako helbidea zehaztuz. Lote bakoitzeko, bere kasuan, eskaintza bakar bat aurkeztu ahal izango du lizitatzailerik bakoitzak (lote bakoitzeko 3 gutun-azalak aurkeztuz). Halaber, gutun-azalaren izendapena eta honako aipamena jasoko da: "USURBILGO UDALEKO SAIL EZBERDINETARAKO IBILGAILU EZBERDINEN HORNIDURA KONTRATUA LEHIAKETA BIDEZ KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA. LOTE ZENBAKIA:"

Gutun-azalaren izendapena honako hau da:

- «A» gutun-azala: Agiri Administratiboak.
- «B» gutun-azala: Balore judizio baten arabeko balorapenerako agiriak.
- «C» gutun-azala: Eskaintza Ekonomikoa eta modu automatikoan kuantifikatzeko agiriak.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak idatziko dira, noren izenean sinatzen duen zehaztuz. Hiru gutun-azalak sinaturik egon behar dute.

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriak originalak edo legezaturikoak izan beharko dute, indarrean dagoen legediarekin bat.

Gutun-azal bakoitzaren barruan hurrengo agiriak eta hauen zerrenda zenbakitua sartuko dira:



Usurbilgo Udala

“A” GUTUN-AZALA
AGIRI ADMINISTRATIBOAK

a) Lizitatzaillearen Ardurapeko Aitorpena, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzearena.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

LOTE ZENBAKIA:

ARDURAPEKO AITORPEN EREDUA

*Izena:.....Helbidea: NA zk., telefonoa..
....., Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasunaren jabe dela, bere izenean (edo
.....ren ordez, helbidea
..... eta NA edo IFK
(pertsona fisikoa edo juridikoa izan), USURBILGO UDALEKO
SAIL EZBERDINETARAKO IBILGAILU EZBERDINEN HORNIDURA KONTRATU*urako
Usurbilgo Udalak deitutako prozedura irekia ezagutu eta

BERE ERANTZUNKIZUPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:

LEHENENGO. *Lizitatzailleak Administrazioarekin kontratatzeko legalki eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta esleipendun izatea proposatuko balitz, kontratazio organoaren aurrean dagokion dokumentazioa aurkeztuko lukeela, esleipenaren aurretik, eskatzen diren dokumentuak dituela eta balekoak direla egiaztatzearen, 3/2011 E.D. Legegilearen 146 artikulua dionari jarraiki. Horrela, esleipenaren aurretik, pertsonalitate juridikoa, ordezkaritza, bere kasuan sailkapena/kaudimena eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izateari buruzko dokumentazioa, eta oinarritan eskatzen den beste edozein aurkeztu beharko duela.*

BIGARRENIK. *Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela:.....*



Usurbilgo Udala

Eta horrela jasota geratu dadin, honako aitortpen hau sinatzen dut.

....., 201.....ko aren(a)

Izenpea

“B” GUTUN-AZALA

BALORE JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO AGIRIAK

Balore judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideei dagozkien agiriak barne hartuko ditu.

“C” GUTUN-AZALA

ESKAINITZA EKONOMIKOA ETA MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKATZEKO AGIRIAK

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

Izen-

abizenak.....Helbidea

..... Posta kodea, NAN zenbakia,

Telefonoa, Ordezkestaren datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-

abizenak NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo

juridikoa denaren arabera), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko USURBILGO

UDALEKO SAIL EZBERDINETARAKO IBILGAILU EZBERDINEN HORNIDURA

KONTRATUA prozedura ireki bidezko espedientea ezaguturik, adierazten dut



Usurbilgo Udala

kontratuaren oinarri den Plegua ezagutzen dudala eta osoki onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz eta honako eskaintza hau eginez:

- *Eskaintza aurkezten dudan lote zenbakia:*
- *Lote horretarako prezioa: euro eta Balio Erantsiaren Zergari dagokion euro, guztira BEZ barne euro.*
- *Lote horretarako hornidura epea zenbat egun naturaletan gutxitzen den: egun natural gutxiago.*
- *Lote horretan, legezko bermeaz gain (2 urte) zenbat berme urte gehiago eskaintzen diren: urte gehiago.*

....., 201....ko aren(a)

Izenpea

19. AGIRIAK KALIFIKATZEA

Ondorengo aipamenak lote bakoitzerako dira.

Kontratazio Mahaia osatuko da eta "A" gutun-azala ireki eta bertan jasoriko agiri administratiboak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa izanez gero, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du lizitatuzaileak aurkezturiko agiritan ikusi diren akats edo hutsegiteak zuzendu ahal izateko.



Usurbilgo Udala

Ondoren, judizio balore baten arabera irizpideak jasotzen dituen “B” gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu. Proposamen horien irakurketaren ondoren, Mahaiak behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu, Pleguetan ezarritako irizpideen eta ponderazioen arabera balorapena egin ahal izateko.

Berriz ere Kontratazio Mahaia bildurik, judizio balore baten arabera irizpideen ponderazioa ezagutaraziko da. Ondoren “C” gutun-azalak irekiko dira.

Judizio balore baten arabera diren irizpideen balorapenaren (B gutun azala) eta ponderazio automatikokoak diren irizpideen (C gutun-azala) balorapenaren ondoren, Kontratazio Mahaiak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileria proposatuko du.

20. AGIRIEN ESKAERA

Kontratazio-organuak lote bakoitzerako ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileria eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean aurkeztu ditzan. Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiatzko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (orijinalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatzaileria bere izenean jardunez gero.

- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.

- Lizitatzaileria pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu.



Usurbilgo Udala

Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.

– Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen du(t)en agiria edo agiriak:

- Urteko negozio bolumena kontratuak hartzen duen eremuan, gutxienez urteko 65.000 eurotako (BEZ-ik gabe).

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Agiri hauek aurkeztuz:

Azken 5 urteetan hornitutako ibilgailu kopurua, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, egunak eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. **Azken 5 urteetan antzeko 4 ibilgailu hornitu** dituztenek ulertuko da kaudimena dutela. Lote ezberdin bakoitzean aurkeztu beharko da, bere kasuan.



Usurbilgo Udala

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailleari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 20.a), 20.b) eta 20.c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

Administrazioarekin kontratatzeke eskaturiko gaitasun eta kaudimen baldintzak ematen direla aintzat hartzeko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera unea izango da.

21. BEHIN BETIKO BERMEA

Ekonomikoki abantaila gehien dituen proposamena aurkeztu duen lote bakoitzeko lizitatzailleak esleipen kopuruaren %5eko bermea eratu izana ziurtatu beharko du, Balio Erantsiaren Zerga kendurik.

Bermea ez da itzuli edo deuseztatuko berme epea amaitu eta kontratua modu egokian gauzatu arte.

Berme honek Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 100. artikulua jasotako kontzeptuengatik erantzungo du, kontratua amaitzetik urte bete epean.

Garantia epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak. Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.



Usurbilgo Udala

22. KONTRATUEN ESLEIPENA

Eskaturiko agiriak jaso ondoren, kontratazio organuak lote bakoitzerako kontratua esleitu beharko du agiriak jaso eta hiru egun balioduneko epean.

Lote bakoitzeko esleipena hautagai edo lizitatzailer guztiei jakinaraziko zaie, eta aldi berean, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena hartzaileak jaso izana ziurtatzen duten edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da. Bereziki, lizitatzailer edo hautagaiek haien proposamenetan zehazturiko helbide elektronikora bidali ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 16. xedapen gehigarria, amaierako 3. xedapena eta urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legearen 41. artikulua araberako. Jakinarazpena ukatutzat hartzeko epea 10 EGUN NATURALEKOA izango da, urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legeko 43.2 artikulua araberako.

23. KONTRATUEN FORMALIZAZIOA

Lote bakoitzeko kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa esleipenaren jakinarazpena jaso eta 15 egun balioduneko epean egingo da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

24. LOTE BAKOITZEKO ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebeharrak orokorrean gain, kontratistaren betebeharrak bereziak dira honako hauek:



Usurbilgo Udala

- Kontratatik Sektore Publikoko Legearen Testu Bateginak 227 artikuluan aurreikusitako ukanbeharrak bete beharko ditu azpikontratazio kasuetarako.
- Esleipendunak ez du indemnitaziorako eskubiderik izango Administrazioari ondasuna eman aurretik izandako galera, matxura edo eragindako kalteengatik, ez bada administrazioak jasotzerakoan atzerapena izan duen kasuetan.
- Kontratatari eskagarri zaizkion gastuak. Kontratataren konturakoak izango dira, preskripzio teknikoetan eta administratiboetan garraio gastuak, etab.ei buruz jasorikoaz gain, lizitazio eta esleipen iragarki edo iragarkien gastu eta zergak, gehienez ere 1.000 euro arte, hala nola aplikagarri den beste edozein gastu, indarreango legedian jasotako forma eta kopurutan.

25. PREZIO BERRIKUSPENA

Ez dagokio prezio berrikuspenik.

26. BERMEAREN EPEA

Bi urteko berme epea egongo da, ondasunak eskura ematek. Epe horretan horniduran akats edo okerrik antzemanaz gero, Administrazioak eskubidea izango du ezegokiak direnak birjartzeko edo, nahikoa izanez gero konponketa eskatzeko.

Administrazioak baloratuko balu, berme epe barruan, ondasunak ez direla eskaturiko helbururako gai dituzten kalte edo akatsengatik eta hauek enpresariari egotzi ahal bazaizkio, eta uste bada ondasunen birjartze edo konponketak ez direla nahikoak izango helburu horretarako, epea amaitu aurretik ondasunari uko egin ahal izango dio, kontratataren kontura utziz eta ordainketa egitetik salbuetsita geratuz edo, bere kasuan, ordainduriko prezioa berreskuratuz.



Usurbilgo Udala

27. AZPIKONTRATATZEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 227. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta eskatutako baldintzak bete behar direnez, adjudikaziodunak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratua partzialki egitea, gehienez ere adjudikazio prezioaren %20raino.

28. EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

Kontratistak, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, atzerapenean sartu bada epearen betetzeari dagokionean, Administrazioak hautatu ahal izango du kontratua eten edo eguneroko zigorrak jartzearen artean. Azken hauek SPKLTB 212.4 artikuluan aurreikusitakoak izango dira, hau da, 0,20 euro kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapen zigorrek kontratuaren prezioaren %5aren multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio organuak kontratua eten edo exekuzioarekin jarraitzea erabaki ahal izango du, kasu honetan, zigor berriak ezarriz.

Zigorrak kontratazio organuak erabakirik ezarriko dira, kontratuaren arduradunik izanez gero honen proposamenez, eta berehalakoan izango da exekutagarri. Kopuru hauek kendu ahal izango dira ordainketa moduan ordaindu beharreko prezioetik edo eraturiko bermetik.

29. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera administratiboa du eta bere prestaketa, esleipena, ondorioak eta iraungitzea plegu honetan jasotakoek zuzenduko dute, eta bertan aurreikusten den ez denerako aplikagarri izango dira azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua eta Administrazio Publikoko Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko



Usurbilgo Udala

1098/2001 Errege Dekretua, azken hau Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartzean indarreangotasuna duen heinean. Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta hauen faltan, zuzenbide probatuko arauak.

Kontratu honetako aldean artean sortu litezkeen eztabaidak ebazteko ardura Administrazioarekiko Auzi-prozesuko Ordena izango da eskuduna, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren arabera.